

# **Ikastolen hemeretzigarren jardunaldi pedagogikoak**

Egun on Ikastolen hemeretzigarren jardunaldi pedagogiko hauetara bildu zareten guztioi. Atsegin handiz nator, urtero bezala, jardunaldi hauen une batzuk zuekin partekatzerara.

Ez dira kortesiazko hitz hutsak. Uste dut legealdi honen hasieratik Ikastolekin batera egin dugun ibilbidea oso landua eta emankorra izan dela. Lankidetzaz gogoan ageria izan da hasiera-hasieratik eta, bereziki, egoera ekonomikotik eratorritako zenbait gora behera batzuen gainetik, oso modu positiboan mamitu izan da euskal hezkuntzaren etorkizunarentzat erabakigarriak izan daitezkeen zenbait gaitan.

Euskal hezkuntza sistema, Eskola 2.0 programaren bidez, eraldaketa teknologiko sakon batean murgilduta dago. Hiru ikasmaila oso-osorik digitalizatu ondoren, aurtengo irailean laugarrenari ekingo diogu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailaraino helduz.

Eraldaketa teknologikoa abian da, aldaketa metodologikoa dugu orain helburu. Zenbait urrats eginak baditugu ere, hori da egun dugun erronka nagusia euskal gizarteak

egingo duen berrogeita zortzi milioiko hezkuntza-inbertsioari behar adinako etekina ateratzeko.

Ikasturte honetan jarri da indarrean bi mila eta hamaikako martxoaren hogeita hamaikan Ikastolen Elkartearekin, eta itunpeko irakaskuntzako gainontzeko sektoreekin, hirueletasuna bultzatzeko asmoz izenpetu genuen Protolokoa; ziur aski datorren urtean bere segida izango duena.

Hizkuntzen kontu honetan ere bidea egiten hasiak gara, baina ez dugu ahaztu behar zein den esperimantazio-aldi honen helburua; azken batean hirueletasuna hezkuntza sistema osoan orokortzea baita; hau da, sistemaren hizkuntz arkitektura beste oinarri malguago batzuen gainean antolatu, ereduaren sistema ordezkatu eta hobetuko duen behin betiko hezkuntza-proposamena zehaztuz, hizkuntzen eskola-erabilerari dagokionez.

Abian jarri ditugun eraldaketa teknologiko eta linguistiko hauek bideratzeko gizarte-irizpidea beti izan da bat eta bera: guztiongana heldu dadila, ikasleen familien egoera sozio-ekonomiko eta kulturala edozein izanik ere. Beti esan dugu sutsuki borrokatuko ginela edozein bretxa edo etenen aurka, are gehiago egungo egoera ekonomikoa zein den ikusita. Eskolan ez dugu etenik nahi ez hizkuntza kontuetan

ezta baliabide teknologikoak eskuratzeko orduan, etenak euskal gizartea zatituago eta ahulago bihurtzen duelako.

Zuen jardunaldi pedagogiko hauen gaiaren harira hurbilduz, berri pozgarria bizi izan genuen pasa den abenduaren hogeita hamarrean, ia hezkuntza sistema osoa ordezkatzeko dugun hogeitabat erakunde eta hezkuntza eragilek Carltonen “Bizikidetzarako Hezkuntzaren aldeko Konpromisoa” sinatu genuenean. Zuen erakundea – Ikastolen Elkarteak – lehen momentutik egon zen ekimen honetan. Eskertzekoa da.

Horrenbeste hezkuntza eragilek beren asmoak hain azkar eta egokiro batu izanak garbi adierazten du nolako gogoaz zegoen guztion hezkuntza-jarduerara garai berri batean kokatu ahal izateko, nolako prestasuna zegoen, erantzukizunez jokatu, gizartearen aurrean modu bateratuan azaltzeko eta nolako ahalegina egin zen oinarri minimo baina sendo batzuen gainean bizikidetzaren aldeko jarduna adosteko.

Modu argian hitz egin genuen Carltonen eta konpromiso zehatzak hartu genituen Hezkuntza Sailak eta bertan izan zineten hezkuntza erakunde eta eragile guztiek, denok norabide berean lan egiteko bizikidetzarako hezkuntza baten alde:

Argi Giza Eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko ahaleginak berretzeko, edozein xede edo egokieraren gainetik.

Argi iraganean, orainaldian edo etorkizunean Giza Eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrera kritikoa indartzeko.

Argi eskubide horien haustearen ondoriozko biktimekiko elkartasuna eta laguntza erakutsiko dituzten jarduerak sustatzeko.

Carltoneko Konpromisoa ez da une batean bere horretan agortzen den zerbait, uneak berak ikaragarriko garrantzia badu ere. Oso pieza zaindua izan da, xehetasun eta kontu guztiarekin landua. Konpromisora heltzeko egin dugun bideak hezkuntzaren balio onenak erakutsi dizkigu: serio lan egiteko gaitasuna, elkarrizketaren bitartez, diskrezio osoz jokatzuz eta adostasunera heltzeko gogoia baliatuz. Xedea nola, bidea hala: hori ere erakusten digu Konpromisoaren emaitzak. Jarraipena izateko borondatearekin sortua da gainera: “Gure hezkuntza-komunitatearen eta gure gizartearen kultura demokratikoa finkatuko duten jarduera adostuak eragiteko konpromisoa hartu genuenean adierazten genuen bezala.”

Oraindik orain eragile guztiek jarraipen bide hori urratzen hasteko borondatea agertu dugu eta, hortaz, bosgarren konpromiso horrek bere garapena izango du aurrerantzean.

Hezkuntza –beti esan dugu- instrukzio hutsa baino gehiago da. Azken aldi honetan agertu zaizkigu zenbait ahots, zenbait eskuineko ahots, lan banaketa bat proposatzen dutenak gai honi dagokionez eskolaren eta familiaren artean: hari legokioke instrukzioa eta familiari hezkuntza.

Egia da eskola ez dela hezkuntza-eragile bakarra, familia ere ez, hezkuntza tribu osoaren eginkizuna da, gizarte osoarena. Baina argi gera bedi ikuspegi aurrerakoi batetik eskolaren eginkizunaz dihardugunean hezkuntzaz ari garela, bere esanahi zabalenean. Eskola baita hezkuntzaren espazio publiko bakarra, ekitatearen bermea, baita ere familiak huts egiten duenean edota bere heziketa-eginkizuna bete ezin duenean.

Hezkuntza balio unibertsaletan oinarritzen bada ere, tokian tokiko eta unean uneko hezkuntza da, eraginkorra izango bada eta bere eginkizuna osotasunean beteko badu.

Hezkuntza hezkuntza da, orain eta hemen.

Horregatik da hain garrantzitsua oraingo eta hemengo galderak plazaratzea, zuek jardunaldi hauen egitarauaren aurkezpenan egiten dituzuen bezala:

Zer egin behar dugu etorkizunean iraganekoa berriro gerta ez dadin? Zein ezaugarri beharko luke etorkizuneko bizikidetzak-ereduak iragana berriro gerta ez dadin?

Esan ohi da galderak, kasu honetan bezala, ondo eginak direnean, egoki planteatuta daudenean erantzunaren erdia baino gehiago ebazten dutela.

Eta bi galdera horiek ongi erakusten dute iraganarekiko jarrera argia duzuela, etorkizuna eraikitzeke nahia duzuela eta, erantzunkizunari uko egin gabe, lan egiteko borondatea duzuela.

Hori da, halaber, Carltonera bildu ginen erakunde eta eragile guztion jarrera. Bertako berba batzuekin bukatu nahi nuke, baikortasunerako hitz hauekin:

“Euskal gizarteak garai berri baten irekiera alaitasunez eta itzaropenez bizi duen une erabakigarri honetan, hezkuntzak, familiarekin eta beste gizarte-eragileekin batera, areagotu egin behar du bere betebeharra gure ikasleen formazioa hobetzen jarraituz, etorkizunerako

protagonista eta eragile gisa era daitezen eta gure herriarentzat bizikidetza oso, integratzaile eta iraunkor baten aro berri bat berma dezaten, bakean eta askatasunean. Betiere gure orainaren eta iraganaren egiazko ezagutza sakon eta integral batean oinarriturik, oroimenik gabe ez baitago etorkizunik, ez askatasunik, ezta justiziarik ere.”

Besterik ez. Mila esker. Jardunaldi hauek oso probetxuzkoak izan daitezela opa dizuet